

ENAP

Euskara Nafarroako Administrazio Publikoetan
[5. zk.] 2023ko ekaina

HITZAK LEGE

Euskarazko testu legal zaharrak Nafarroako Parlamentuan

D EREDUA NAFARROAKO HEGOALDEAN

Elkarrizketa sare publikoko hiru irakasleri

HIZKUNTZA PLANGINTZA NAFARROAKO IPARRALDEAN

Bortzirietarako Euskararen II. Plan Estrategikoa

Nafarroako Gobernuko Hizkuntza Planen Ebaluazioa



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea



1930eko irailaren 27an ospatutako Euskararen Eguna Iruñean.
Argazkilaria: José Galle Gallego.

Día del Euskera celebrado el 27 de septiembre de 1930 en Pamplona.
Fotógrafo: José Galle Gallego.

ENAP

Euskara Nafarroako
Administrazio Publikoetan
[5. zk.] 2023ko ekaina

Koordinatzailea:

Euskara Administrazio
Publikoetan
Garatzeko Zerbitzua
(Euskarabidea)

Kolaboratzaileak:

Hizkuntza Baliabideen Zerbitzua,
Euskara Sustatzeko Atala
Hezkuntza Departamentua,
Turismoko Marketinaren eta
Nazioartekotzearen Zerbitzua,
Kultura Zuzendaritza Nagusia -
Vianako Printzea Erakundea,
Nafarroako Parlamentuko prentsa
zerbitzua,
Artxiboen eta Dokumentu
Ondarearen Zerbitzua.

Diseinua: cobo-munarriz.com

Azaleko argazkia: Amaya Alcelay
(Nafarroako jauregia)

Irudiak: Oscar Munarriz eta
Freepik

Argazkiak: Euskarabidea

ENAP aldizkarian argitaratutako
artikuluak berridatz daitezke bai
osorik, bai zatika, baina artikuluak
nondik atera diren aipatu
behar da beti.

ENAP aldizkariak ez ditu
derrigor bere egiten artikulu eta
kolaborazioetan agertzen diren
iritziak.

ISSN: 2697-0988

Egilea: Euskarabidea-Euskararen
Nafar Institutua
Paulino Caballero 13
31002 Iruña
Tel. 848 42 60 54
www.euskarabidea.es

AURKIBIDEA

- 4 **Elkarrizketa:** Mirari Elizondo,
Unai Rodriguez eta Patxi Juaniz.
- 8 **Erreportajea:** Nafarroako Gobernuko
hizkuntza planen ebaluazioa.
- 9 **Gobernutik:** Irulegiko aurkikuntza.
- 10 **Parlamentutik:** Hitzak Lege erakusketa.
- 11 **Udaletatik:** Bortzirietarako Euskararen
II. Plan Estrategikoa.
- 12 **Euskarabidetik:** Euskara Aleka
podcasta.
- 13 **Ohar historikoa:** Euskara Erdi Aroko
Erriberan.
- 14 **Hiztegi terminologikoa:** Soziolinguistika
glosarioa.

* Hurrengo aleetan parte hartu nahi baduzu, bidali zure proposamena
euskarabidea@navarra.es helbidera.

Mirari Elizondo Torres Unai Rodriguez Fernandez Patxi Juaniz Moriones

Eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetako irakasleak D ereduan



2015ean Euskararen 18/1986 Foru Legearen moldaketa onartu zuen Nafarroako Parlamentuak, eremu ez-euskalduneko ikastetxe publikoetan D ereduan ikasteko eskubidea bermatuz. Geroztik eremu horretako 8 ikastetxetan daude D ereduko lerroak, eta bertan lan egiten duten irakasleei elkarrizketa egin diegu garapen honi buruzko lehen eskuko informazioa jasotzeko.

Zein izan da zuen ibilbidea eremu ez euskalduneko D ereduko ikastetxeetan, eta zer nolako errealitatea aurkitu zenuten hasieran?

Unai: Nire lehenengo urtea da Lodosan. Orokorrean familia eta ikasleen partetik oso jarrera ona topatu dut herrian, baita eskolan ere. Klaustro osotik oso kopuru txikia garen arren, euskara begi onez ikusten dutela esango nuke. Aurten izaten ari omen da irakasle gelan euskara gehien entzuten den urtea eta hori poztekoa da, izan ere, eremu ez euskaldunetan ere geroz eta gehiago garelara dirudi.

Mirari: Aurten nire lehen aldia da Sesman. Euskararekiko eta euskal kulturarekiko oso jarrera baikorra topatu nuen haur eta familien aldetik.

Patxi: Aurten nire bigarren ikasturtea da, aurrekoan Azkoienen egon nintzen eta aurten Sesman. Errealitate ezberdinak topatu ditudan arren, oraindik lan asko egiteko dagoela esango nuke.

Zein zailtasun topatu dituzue bidean?

M: Zoritxarrez, euskararen bideak beti maldan gorakoak dira. Ez da erraza euskararen alde lan egitea, baina bai polita.

P: Gure indargunea gutako bakoitzak euskararekiko dugun maitasuna eta konpromezua da. Jende asko oso inplikatuak gaude honetan: familiak, langileak, kolektiboak, elkarteak... denen artean elkar laguntzen soilik aurrera egin dezakegu.

M: Eskolan, Nafarroa osoan bezala, trabak eta zailtasunak jartzen dituzten pertsonak daude. Instituzioa bera ere oztipoa da.

U: Umeek, zoritxarrez, egunerokotasunean euskaraz bizitzeko aukera gutxiago dituzte horrelako eremuetan, kanpoko estimulu gutxiago baitaude. Adibidez, aisialdia, zinema, eskolaz kanpoko jarduerak... gehienak gazteleraz izaten dira, eta zaila izaten da horrela eskolak eta egurokotasunak bat egitea. Herriarren, familien, ikasleen eta irakasleon babesaz gain, ezinbestekoa da, nire ustez, goitik ere euskarari balio bat ematea, gelan landutakoak egunerokotasunean ere islada eduki dezan. Horrela askoz ere aberasgarriagoa eta eraginkorragoa izango litzateke gure lana, denok alde berbererantz arraun eginez. Izan ere, euskaraz bizi nahi duen jendea egon badago, eta hori ere zilegi da.

P: Aurrera egitea besterik ez zaigu geratzen eta ahal den neurrian pozik, umoretsu eta elkarrekin.

Zer nolako harrera nabaritu duzue D ereduaren inguruan herri horietan?

P: Orokorrean oso jarrera positiboa aurkitu dugu herriarren partetik.

U: Guk ere ez dugu inongo arazorik izan eta lasaitasunez ospatu izan ditugu gure jaiak Lodosako kaleetan zehar; batzuetan, Sesmako lagunekin; besteetan, ikastolakoekin... Euskara eguneko topaketa dut gogoan eta oraindik irribarrea ateratzen zait hura pentsatzean. Sesma eta Lodosako ikasle eta irakasleagoa pankarta baten atzetik "Sesman, Lodosan, euskaraz!" kantatzen herriko kaleetan zehar.

M: Herrian egindako jardueretan oso harrera ona jaso dugu. Esaterako, eguberrietan euskal dantzak herritarrekin batera dantzatzen egon ginen, euskal kultura plazaratzeko modu bat izan zen.

P: Aurreko urtean, Azkoienen A eta D ereduen artean Korrika Txikia antolatu genuen eta izugarriko harrera izan zuen herrian. Jendetza bildu ginen eta oso hunkigarria izan zen.

Lanketa berezia egiten duzue herrietako familiekin edo inguruko elkarteekin?

U: Guk lanketa berezirik ez dugu egiten, baina D ereduko eta A ereduko euskarako ikasleen artean ekintza dezente egiten ditugu: antzeko programazioa eramaten saiatzen gara, elkarri ipuinak kontatzen dizkiogu, proiektuak aurkezten ditugu, irteera ezberdinak proposatu ditugu...

M: Gehiago egin nahiko genuke, baina horretan gabilta. Herrian Taupada izeneko elkarte zegoela jakin genuenean, adibidez, haiekin harremanetan jarri ginen. Sesman euskara, besteak beste, bultzatzen duen elkarte da eta haiekin elkarlanean aritzea garrantzitsua zela ikusi genuen. Gure ustez, eskola eta herria, ahal den neurrian, elkartzeak aberasten gaitu.

Familiei dagokienez, herria eta inguruak eza-gutzeko asmoz, familia baten intxaurren ikustera joan ginen. Hori ere elkarlanerako aukera polita izan zen, bai haurrentzat, bai eta familia eta irakasleontzat ere.



Zein familia eta ikasle profil dituzue, hizkuntzari dagokionez?

U: Gure herrietan, normalean, ama-hizkuntza gaztelera duten ikasleen familiak gailentzen dira. Hala ere, badaude ere beste jatorrietako edo etnietako familia batzuk, hala nola, ijitoak, marokiarrak, bolibiarrak, peruarrak, arabiarrak, edo ukrainiarrak, haien seme-alabak D eta A ereduetan eskolaratu dituztenak eta euskararen aldeko apostua egin dutenak. Gainera, badira familia batzuk euskara ikasten ari direnak eta euskaraz komunikatzen direnak, oso pozgarria da.

D ereduaren hizkuntzan murgiltzea suposatzen duenez, neurririk hartzen da eremu ez euskalduneko egoera soziolinguistikoa konpentsatzeko?

M: Orokorrean haurrek oso modu naturalean bizi dute murgiltze eredu. Haurrak euskalduntzeko biderik eraginkorrena murgiltze eredu dela esango nuke. Gero, kasuan kasu, bakoitzaren beharretara jo behar dugu. Bati matematikako kontzeptu bat ulertzea gehiago kostatzen zaion bezala, beste bati ahozko adierazpena kosta dakioke.

P: Bestetik, aisialdian euskaraz gozatzeko aukerak edukitzea ezinbestekoa dela uste dut. Azkenaldian Agerraldiak sekulako lana egiten du hori errealitate bilakatzen. Bai Azkoienen, baita Sesman ere "JOLASTEKA" egitasmoa sortzen lagundu dute. Haurrengan arrakasta handia dauka eta euskara eremu formaletik eremu ez formalera pasatzea errazten du. Hau da, euskaraz bizitzeko aukera ematen die.

Nafarroak hiru hizkuntza eremu ditu, eremu ez euskaldunetan lan egitea ezberdina al da beste eremuekin alderatuz?

P: Bai, ez soilik eremuagatik. Zorionez herri bakoitzak errealitate propioa dauka eta eskola ere horren islada da: ikasleen eta irakasleen profila, hezkuntza eredu, hizkuntzekiko ikuspegiak, ikuspegi kulturala, baloreak, herritarren parte-hartzea...

M: Era berean, eremu bakoitzean dagoen komunitate linguistikoak D ereduako eskoletako lana baldintzatzen duela esan daiteke. Ez da berdina Ituren herrian euskaraz bizitzeko topa ditzakezun arnaguneak edo Sesma batean topa ditzakezunak. Horregatik, jolasteka egin den bezala, bestelako ekintza kulturekin euskarari bide berriak ireki behar dizkiogu.

U: Erronka polita da, etengabe eraldatzen eta eguneratzen joan behar dena, egoera ezberdinetara egokituz eta bertakoarekin bat eginez.

Zein erronka ikusten dituzue etorkizunari begira?

P: Euskararen normalizazioa Nafarroa osoan, euskararen legea berritzea eta zonifikazioa bukatzea. Euskara Nafarroako hizkuntza propioa da eta oraingo hizkuntza politikek ez dute bere biziraupena ziurtatzen.

Ez da hizkuntza soilik, euskal kulturaren lanketa eta sustapena non geratzen da? Mexikon "Malinchismo" deituriko jarrerak ematen dira, hau da, bertakoa baztertu eta kanpoko kultura eta hizkuntza bedeinkatu, noski, soilik anglosaxoia bada.

M: Bestetik, uste dut indarrak batu beharko genituzkeela eskola desberdinetako irakasleen artean koordinazioa eta antolakuntza ziurtatzeko. Horrela ere, gure borrorak, kezak, ospakizunak, ideiak, desirak, ametsak... partekatzeko aukera izanen genuke eta baliteke elkarrekin indartsuagoak izatea.

Ez soilik D ereduaren artean, A ereduaren irakasle eta ikasleekin elkarlanean aritzeko aukera asko ditugu: euskararen eguna, herri-inauteriak, euskaraldia edo korrika ...

Insituzioei dagokienez ere, erronka handia dago oraindik. Hezkuntza Departamentuak euskaraz ikasteko eta bizitzeko eskubidea bermatu behar du, horretarako beharrezko baldintzak eta baliabide guztiak kudeatuz.

U: Eta, batez ere, hizkuntzak aukera bezala hartzearen ideia zabaldu beharko litzateke

jendartean. Gaur egun, tamalez, asko dira ere hizkuntzak oztopo bezala hartzen dituztenak herrialdeak elebakar bihurtuz, guztiz alboratuz hizkuntza batek dakarren aberasgarritasun guztia. Horregatik, euskararen aldeko apostuaren ideia zabaldu behar da, geure-geurea izateaz gain, etorkizunera begira aukera oparoak eskaintzen dituelako.

P: Agian daukagun erronkarik handiena D ereduaren jendartearen aniztasun osora zabaltzea da. Euskara familia migranteengana eta ijito familiengana iristeko benetako apustua egin

beharko litzateke. Ezin zaio ez ikusiarena egin gaur egun Nafarroak duen aniztasunari. Sekulako aukera galtzen ari gara, instituzioek espreski ez dutelako nahi.

Haur hauei euskara ikasteko aukera ebastea baztertzeko beste modu bat da. Euskaraz irekitzen ahal dizkien bideak ukatzen zaizkie. Beraz, instituzioek egiten ez duten lana egitea tokatzen zaigu eta ez dut uste behar adina egiten ari garenik. Honetan autokritika handia egitea dagokigula uste dut. ■



Nafarroako eremu ez euskalduneko D ereduaren ikastetxe publikoak (kontuan izan behar da zenbait tokitan D ereduaren eremu ez euskaldunetan hasi zela eta beranduago toki horiek eremu mistora pasatu zirela, adibidez, Tafalla edo Abartzuza).

Entrevista a tres docentes del modelo D en escuelas públicas de la zona no-vascófona de Navarra

Nafarroako Gobernuko hizkuntza planen ebaluazioa

Euskarabideak departamentuetako 2019-2023 epealdirako [hizkuntza planen ebaluazio txostena](#) aurkeztu du. Legealdi hasieran Nafarroako Gobernuko departamentu bakoitzak bere hizkuntza plana onartu zuen Foru Agindu bidez, eta Euskarabidearen koordinaziopean eta departamentuetako arduradun eta teknikariek planak garatu dira. Lehen plangintzaldi honetan jasotako datuak eta garatutako jarduerak 2023-2027 legealdiko plangintzaldirako oinarria dira, eta adierazleak definitzea izango da hurrengo erronka.

Planen garapenean hainbat lan metodo erabili dira, esate baterako Gobernuko egoitzetara programatutako bisitak egitea, galdetegi telematikoak zabaltzea, eduki digitalak modu antolatuan behatzea edo departamentuetako langileekin elkarrizketak egitea, eta plan orokorraren aplikazio zehatza egiteko Altsasu, Iruztzun, Doneztebe eta Lesakako egoitzetan pilotajeak egin dira.

Hizkuntza planen baitan egin diren jardueren adibideak:


- Gobernuko 126 egoitzetako hizkuntza paisaia aztertu dira, eta dagokien arduradunei hobetzeko proposamen txostenak aurkeztu zaizkie.
- Itzulpenak kudeatzeko plataforma informatikoa ezarri da eta 2019tik 2022ra itzulpen eskaerak bikoiztu dira.
- Gobernuaren kanpaina instituzional guztiak (222 osotara) ele bitan argitaratu dira, bideoak barne.

Euskarabidea ha presentado el [informe de evaluación](#) de los planes lingüísticos departamentales.



- Tramite elektronikoko egonkor gehienak ele bitan eta eguneratuta daude.
- Langileen artean ahozko komunikazioa errazteko identifikadoreak banatu dira.
- Eremu euskalduneko langileen artean banatutako galdetegiak euskararen erabilera ohikoa erakusten du:

Zein da euskararen erabilera zure lanpostuan?



Irulegiko aurkikuntza

Aranguren Ibarrean dagoen Irulegi mendiko indusketen garapenean zehar, 2022ko azaroan, aztarnategian, Irulegiko Eskua topatu zen, eremuko etxebizitza bateko ongi etorriaren brontzezko plaka apaingarri bat, euskeraz idatzitako K.a. I. mendeko lehenengo testu ezagunarekin.

Kultura Zuzendaritza Nagusia - Vianako Printzea Erakundeak eta Aranguren Ibarreko Udalak sustatutako ikerketa honetan Aranzadi Zientzia Elkarteak 2018tik ari da Irulegiko gaztelua aztertzen, eta 2021ean eremu irekiko indusketei ekin zioten eta hainbat etxebizitzaren hondarrak aurkitu zituzten. Bertako biztanleak Brontze Aroaren erdi aldetik (K.a. XV-XI. mendeak) Burdin Aroaren amaiera aldera arte (K.a. I. mendea) bizi izan ziren.



Nafarroako Gobernuak apirilean Irulegiko Multzoa Interes Kultureleko Ondasun (IKO) izendatzea erabaki zuen. Gune arkeologiko hori gazteluaren hondakinek eta aurreko habitat protohistorikoak osatzen dute. Izendapen horrek gunea hainbat arlotan babesten du, hirigintzaren arloan esate baterako.

Aipatzekoa da Betelun ere badela Irulegi izeneko mendi bat, non XIII. mendean gaztelu bat egon zen. Nafarroa Beherean ere bada Irulegi (frantsesez Iroulégu) izeneko udalerrri bat, Baigorri eta Donibane Garazi artean. ■

En este artículo se explica el contexto del descubrimiento del yacimiento de Irulegi

EUSKARAZKO TESTU JURIDIKO ZAHARRAK PARLAMENTUAN ERAKUSGAI

Nafarroako Parlamentuan Euskaltzaindiak antolatutako **Hitzak Lege** erakusketa ibiltaria izan da ikusgai, euskal hiztunek harreman juridikoetan euskara erabili dutela eta erabiltzen dutela azaleratzeko helburuarekin.



Erakusketan Nafarroan ekoiztako 25 bat idatzizko dokumentu erakutsi dira, bai eta Foru Parlamentari zein Nafarroako lehendakarien audioak ere. Hona hemen ikusgai izan diren adibide batzuk:

- Leireko kartularioa (1059), non Agezako toponimoak ageri diren latinezko testu batean.
- Aralarko pergaminoa (1167).
- Nafarroako Foru Orokorra (1240).
- Murillo el Frutoko petxak (1400), non toponimoak euskaraz ageri diren.
- Pirinioetako larren gaineko negoziatioak (1616).
- Berako olagizonak, Juan Bautista Iturriak, Juantxo Bereauri prozesu judizialean igorritako gutunak (1674 eta 1676).
- Euskararen aldeko saila sortzeko erabakia (Foru Diputazioaren erabakia, 1956-11-28).
- Nafarroako Foru Hobekuntzaren Legea (1982).

Horretaz gain, 25 panel fisiko jarri dira dokumentuen informazioarekin, hiru ataletan banatuta: aldean arteko harreman juridikoak, eragin kolektiboko testu juridikoak, eta testu parajuridikoak. ■



El Parlamento de Navarra ha acogido la exposición **Hitzak Lege**, organizada por Euskaltzaindia y que muestra textos jurídicos antiguos en euskera.

BORTZIRIETARAKO
EUSKARAREN II.
PLAN ESTRATEGIKOA
2021-2024

BORTZIRIETAKO
EUSKARA MANKOMUNITATEA

elhuyar
Aholkularitza

Nafarroako
Gobernua

Gobierno
de Navarra

Bortziriatarako Euskararen II. Plan Estrategikoa ezagutzuz

Nafarroako eremu euskalduneko Bortziriatarako udalerriek (Igantzi, Arantza, Lesaka, Etxalar eta Bera) euskara zerbitzua mankomunatua dute, eta zerbitzu honek 2014 abiarazi zuen Bortziriatarako lehen plan estrategikoa. Egun 2021-2024 epealdirako euskararen bigarren plan estrategikoa burutzen ari dira.

Kontuan hartzekoa da Bortziriek 8.000 biztanletik gora dituztela eta % 70ak baino gehiago euskalduna dela. Eremu honetako ikasleen % 90etik gora D erudian ikasten du eta bost udaletako plantilla organikoetan euskaldunen kopurua % 100a da.

Plan estrategikoa honetako helburu orokorra modu honetan definitu da:


Bortzirietan euskararen biziberritzean aitzinera egitea eta arnasmune izaera indartzea, norbanakoen eta mota guzietako gizarte eragile eta entitateen aktibazioa sustatuz.

Hemendik abiatuta, ildo estrategikoa zehatzak definitu dira:

Haur-gaztetxoek (<16 urte) sozializazioa



Hiztun berriak



Gizarte erabilera



Corpusa



Kudeaketa



En este artículo se realiza un acercamiento al II. Plan Estratégico del Euskera de Bortziriak.

Euskarabideak ekoiztutako Euskara Aleka podcasta

Nafarroako Gobernuak ekoiztutako lehen podcasta da



Euskara Aleka podcasta, Euskarabideak ekoiztua, euskarak Nafarroan eta honen hiriburuan mendez mende izan duen garrantzia erakusten du. Nafarroa osoko hamaika kontakizun, istorio, gertakari eta pertsona ageri dira hogeita sei ataletan banatuta.

Adituen lan eta ekarpen baliotsuak izan dira oinarri edukiak sortzeko: Jose Maria Jimeno Jurio, Peio Monteano, Jose Maria Satrustegi, Patxi Salaberri, Joxemiel Bidador, Mikel Belasko eta beste.

Euskarazko bertsiora sartzeko lotura: [Euskara aleka euskaraz](#)

Eduki interesgarri honen adibide moduan, hemen lehen aleko bi zatiren transkripzioa:

Nafarroa beti izan da pasabide bidaiariendako, eta haietako aunitzek euskarari erreparatu diote gure lurraldeaz eta hiriburuaz mintzatzean.

Lehen lekukotasuna X. mendekoa da, 924. urtekoa. Arabieraz idatzia dago. Egilea Al-Himyari izeneko geografoa da, Abderraman III.a buruzagi arabiarren hiriaren aurka egindako kanpainaren kronikaria, alegia. Hauxe idatzi zuen:


“Iruñeko biztanleak pobreak dira, ez dute aski jaten, eta lapurretan aritzen dira. Gehienak euskaraz mintzo dira, eta horregatik, ez zaie batere ulertzen...”.

Al-Himyarik euskarari al-baskiya esaten dio.

[...]

XV. mendearen bukaeran, Von Harf noble aleman gaztea erromes joan zen Santiagoraino eta bidaiaren kontakizuna utzi zuen idatzirik. Ederra iritzi zion Iruñeari, eta bi gauza egin zitzaizkion deigarri: emakumeen jantzi ikusgarriak eta euskara. Nabarmenezkoa da euskara-alemana hitz zerrendatxo bat egin zuela, oinarritzko elikagaien euskal izenen berri emateko: ogia, ardoa, haragia eta beste. Era berean, nor da?, zenbat? eta gisako galderak idatzi zituen, bai eta beste esamolde batzuk ere, hala nola “Gabon Jainkoak dizula”.

El **podcast Euskara Aleka** (Ecos del Euskera), muestra la importancia que el euskera ha tenido en Navarra y en su capital a lo largo de los siglos. Este proyecto es el primer podcast producido por el Gobierno de Navarra. Enlace para acceder a la versión en castellano: [Ecos del Euskera podcast](#)



Euskara Erdi Aroko Erriberan


Peio Monteano Nafarroako Errege Artxibo Nagusiko langileak “La lengua invisible. El euskera en la corte y en la Ribera de Navarra en el siglo XV” liburuan Erdi Aroko Nafarroako hizkuntzaren historia aztertzen du, Erriberan euskararen erabilerak egunerokoan zuen garrantzia nabarmenduz. Murillo el Fruto herriko pergaminioan idatzitako petxa-liburu bat oinarri hartuta, XV. mendeko gizarte hartan euskarak Nafarroako Erriberan zuen presentzia erakutsi nahi izan du.

Liburuak izenak eta kopuruak bakarrik jasotzen ditu, baina izen horien artean erreferentzia toponimiko garrantzitsuak daude: “Baratzetako odia”, “Uharteko odia”, “Baratzezarreta” eta antzeko beste hainbat izen ageri dira. Toponimia kultura-produktua da eta pertsonak sortzen dute, eta horiek hitz egiten duten hizkuntzan deitzen diete gauzei. Murillo el Fruto liburuan hogeita hamar bat leku-izen ageri dira: 18 euskaraz eta 14 erromantzean.

Murillotarrek XV. mendearen hasieran erabiltzen zituzten izen gehienak ez dira gaur egun erabiltzen. Dena den, Erdi Aroko toponimia horren gehiengoa desagertu izanak ez digu galarazten gaur egungo mapan kokatzea. Oraindik orain, herritar batzuk herriko lurri erreferentzia egiteko euskarazko izenak erabiltzen baitituzte.

Peio Monteanok aztertutako dokumentuan ez dira soilik lekuen izenak agertzen, pertsonen izenak eta izengoitiak ere ugariak dira eta horiek ere erakusten dute euskararen presentzia. Onomastika hori egunero erabiltzen zuten hizkuntzaren beste lagin bat da (adibidez: Pero García Lucea, Salvador Ederra, Semeno Gorria, Semeno Laster, Maria Landatu, García Çalduna...).

Kontuan hartu behar da mende haietan euskaraz erabiltzen ziren izenak askotan ziurtasun osorik gabe itzultzen zirela; notarioek sarri itzulpenak egiteko garaian ez zuten jakiten izenak itzuli edo ez, edo zein grafia erabili. Izan ere, aldaketa horiek identifikazio-arazoak sor zitzaizkion gero. ■



El libro “La lengua invisible. El euskera en la corte y en la Ribera de Navarra en el siglo XV” de Peio Monteano muestra el uso habitual del euskera en la Ribera de Navarra en la Edad Media.

HIZTEGI TERMINOLOGIKOA

SOZIOLINGUISTIKA
GLOSARIOA

(Iturria: Soziolinguistika Eskuliburua)

Hizkuntza-ukipena: munduko hizkuntza gehienak ez dira isolatuak, kontaktuan dira. Hizkuntza-ukipena, gizarte berean hizkuntza bat baino gehiago hitz egiten direnean, hizkuntza horien artean sortzen den erlazioa da. Hizkuntza-ukipena soziolinguistikaren ikergai nagusietatik bat da. Era orokorragoan, hizkuntza-ukipena hiru ikuspuntutaz azter daiteke: norbanakoarena, hizkuntza-komunitatearena eta hizkuntzarena berarena.

Hizkuntza-gatazka: bi hizkuntzaren edo bi hizkuntza-komunitateren artean gertatzen den lehia. Gizartean erabilera-eremuak eta funtzio sozialak eskuratzea eta, ondorioz, besteari nolabait kentzea da lehia horren funtsa.

Hizkuntzaren ordezkapena: hizkuntza batek beste hizkuntza baten erabilera-eremuak eta funtzioak irabaziz joatean gertatzen den prozesua. Hizkuntza menderatzaileak aurrera egiten jarraitzen badu, jatorrizko hizkuntza desagertu ere egin daiteke.

Elebitasuna banako nolakotasuna da; bi hizkuntza jakitea eta txandaka erabiltzea da. Elebitasun-mota asko badaude: hizkuntza-jabetzearen arabera (lehen hizkuntza, bigarren hizkuntza), hizkuntzen jabetze-ereduaren arabera (familiar, eskolan, autoikaskuntzaren, zuzeneko esperientziaren bidez), hizkuntza-gaitasunen arabera (arabera, etab).

Diglosia edo elebitasun soziala gizarte-egoera da. Hizkuntza-komunitate batean bi hizkuntza edo bi hizkuntza-barietate desberdinen erabiltzea da. Hizkuntza edo barietate horiek esparru eta funtzio desberdinetarako erabiltzen dira; bata funtzio formaletarako (administrazioa, hezkuntza, ikus-entzunezko hedabideak...) eta bestea informal eta pribatuetarako (familia, lagunartea). Maizenik egoera diglosikoa desorekatua da funtzio

horien banaketa bidezkoa ez delako. Gainera egoera diglosikoa dinamikoa da, hizkuntza batek, menderatzaileak, hain zuzen, bestearen funtzio eta erabilera-eremu berri batzuk bereganatzen dituelako denboran zehar.


Hizkuntza-eskubideak: norbanakoak edota taldeak eremu pribatuan zein publikoan hizkuntza edo hizkuntzak hautatzeko duten giza eskubide zibila da.

Hizkuntza-politika: erakunde publikoek hizkuntzen erabilera antolatzeke eta arautzeko egiten dituzten esku-hartzeen multzoa da hizkuntza-politika. Oso garrantzitsua da batez ere hizkuntza bat baino gehiago gobernu beraren administraziopean daudenean (munduko estatu gehienak eleaniztunak dira, eta oso gutxi izan dira estatu elebakarrak historian zehar). Estatuak komunikazioaren bitartez, besteak beste, exekutatzeko dute boterea eta komunikazioaren oinarria hizkuntza denez, estatuentzat oso garrantzitsua da hizkuntza eta horri dagokion politika, hain zuzen ere, hizkuntza-politika.

Ofizialtasuna: hizkuntzari esleitzen zaion lege estatusa. Horren ondorioz, hizkuntza horrek lege balioa izango du estatus hori esleitu zaion lurralde horretan.

Hizkuntza-normalizazioa: minorizazio-egoeran dagoen hizkuntza egoera horretatik atera eta gizarte-esparru eta funtzio guztietara hedatzeko prozesua.

RLS (Reversing Language Shift), hizkuntza indarberritzea: funtzioak eta erabilgarritasuna galduz doan hizkuntza batek hizkuntza-ordezkapeneranzko joera hori etetea eta egoera iraultzea. Joshua A. Fishmanek ordezkapena jasaten ari diren hizkuntzak indarberritzeko sortutako ereduak da. Hizkuntza bat indarberritzeko, hiztunak eta jardunguneak edo eremuak irabazi behar ditu. Fishmanek zortzi mailako eskala sortu zuen hizkuntzaren egoeraren diagnostikoa egiteko eta maila bakoitzean hizkuntzaren ordezkapen prozesua geldiarazteko zeintzuk diren lehenetsunak definitu zituen. Garrantzi handia ematen dio hizkuntza harreman hurbilenetan erabiltzeari.



Soziolinguistika akademikoa: hizkuntza egoera edo hizkuntza-errealitate bat ezagutzea du helburu, betiere, ezagutza horrek arlo teoriko, epistemologiko edota metodologikoan ekarpen bat egingo duelakoan. Beraz, soziolinguistika akademikoak ezagutza elikatu nahi du eta esku-hartzea ez da, teoriarik, bere helburu zuzena. Halere, praktikan, zaila izaten da teoriatik aplikaziora salto egitea eta, alderantziz, interbentzio gunetik teoriara ez pasatzea. Ereduen sorkuntza, nozio edota kontzeptu berrien proposamena edo ikerkuntzarako tekniken inguruko berrikuntzak zabaltzea izan daitezke soziolinguistika akademikoaren helburuak.


Soziolinguistika aplikatua: soziolinguistika aplikatuak hizkuntza-egoera edo hizkuntza errealitate batera hurbiltzea du helburu, betiere, hortik sortutako ezagutza, hausnarketa zein ondorioak (hizkuntza gutxiagotuen kasuan, behintzat) berreskurapena edota hainbat joeraren aldaketa bideratzeko erabiliko direlakoan. Helburu hori dute arlo honetan osatutako teoriak eta berari loturiko lan-ildo edota proposamenek. Esate baterako, plangintza bat diseinatzeke eman beharreko pausoak, burutu beharreko lanak eta bete beharreko helburuak soziolinguistika aplikatuaren kezkak dira.

Hizkuntza-plangintza: hizkuntza-plangintza terminoaren bidez, beste batzuen hizkuntza portaeran eragiteko, hizkuntzen eta hizkuntza aldaeren irakaskuntzan, egituraren eta funtzioetan egindako ahalegin kontzienteak adierazten dira (Cooper, 1997). Hizkuntza-politikan erabakitakoak gauzatzeko ekimen planifikatuak biltzen ditu hizkuntza-plangintzak, edo zentzu zabalagoan, hizkuntzen erabilera edo egitura eragiteko esku-hartze kontzienteak (Lamuela, 1994); izan ere, sarritan, esku-hartze horiek ez dira izaten aski planifikatuak

ez baitute plan batek izan behar duen ezaugarriarik, nahiz eta hizkuntza-plangintza izena jarri.

Corpusaren plangintza: hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da, alderdi linguistikoa lantzen duena. Honen barruan lantzen dira, besteak beste, gramatikak, hiztegiak, ortografia arauak... Azken helburua hizkuntza-kodea bera beharrian berrietarako prestatzea da. Helburu hori lortzeko garrantzitsua da plangintza-mota honetan hizkuntzaren estandarizazio-prozesua, hau da, hizkuntza baten aldaera estandarra zehaztu, ezarri eta lantzeko egiten den prozesu linguistiko eta soziala.

Estatusaren plangintza: hizkuntza-plangintzaren osagaietako bat da. Hizkuntzaren alderdi soziala lantzen du; hemen sartzen dira, adibidez, estatus legala ezartzea, hizkuntzaren alde egindako kanpainak, hizkuntza-transmisioa bermatzeko egindako ekimenak, helduak alfabetatzeko ekintzak eta abar. Estatus-plangintzaren azken helburua da hizkuntza batek, edo hizkuntza-aldaera batek gizartean duen egoera aldatzea. Bi plangintza-motetan zailena da, gizartean aldaketa bat lortzea duelako helburu.



www.euskarabidea.es



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua



euskarabidea